Donibane Lohizune garapen
iraunkorraren alde engaiaturik
Ville durable
SAINT-JEAN-DE-LUZ

Aurkibidea

ARDATZA 01 — Energia trantsizioan errotu hiri antolakuntzak eta ekonomia garapena

- **HELBURUA 01** Bidaietan eta bizitegietan erabiltzaileek karbonodun energiekiko duten mendekotasuna gutxitzea
- **HELBURUA 02** Lekuz alda ez litezkeen lanpostu kalifikatuak atxiki eta sortzea
- **HELBURUA 03** Donibane Lohizune turismo arduratsuaren urraspidean engaiatzea
- **HELBURUA 04** Banabide laburreko kalitatezko elikagaien ekoizpena sostengatzea

ARDATZA 02 — Klima aldaketara egokitzen den bizi ingurune zaindua

- **HELBURUA 05** Hiriak dituen ondare eraiki eta paisaiazkoak zaintzea
- **HELBURUA 06** Bioaniztasunaren zaintza Donibaneko naturaguneen erabilerarekin bateratzea
- **HELBURUA 07** Hiria itsas hegiaren higaduraren eta klima aldaketaren ondorioei egokitzea

ARDATZA 03 — Gizarte kohesio eta kultura bizitza azkartuak

- **HELBURUA 08** Diru baldintza onargarrietan lortzea bizitegia
- **HELBURUA 09** Biztanleak haiei egokitu zerbitzu publikoen bitartez laguntzea
- **HELBURUA 10** Kultura eta kirol politikak garatzea
- **HELBURUA 11** Herritar jokamolde berriak ezagutzea eta geureganatzea faboratzea

ARDATZA 04 — Energia trantsizioan kokaturik diren herri zerbitzuak

- **HELBURUA 12** Herri zerbitzuek karbonodun energiekiko duten mendekotasuna gutxitzea
- **HELBURUA 13** Herriaren "Finantza eta erosketa" funtzioa baliatzea ekoarduratsu diren jarduera eta eskaintza ekonomikoak bultzatzeko
- **HELBURUA 14** Hiri iraunkorraren urraspidea erregularki biziaraz eta balioztatzeko aukera emanen duten barneko baldintzak ezartzea

Egitate eremua : Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea · Ingurumenaren zaintza · Gizarte kohesioa eta elkartasuna · Bizi koadroa · Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra

Edito

Garapen Iraunkorra hain kontzeptu zabala da ezen batzuetan saltsa orotan sartzen baitute.

Donibane Lohizunen ez gara terminoa modan izatearen zain izan gure ingurumenaz arduratzeko, ekonomiaren garapena eta gure bizi inguru-nearen zaintza bateratu beharrari jarraikiz.

Garapen iraunkorra printzipio adierazpen handi-mandietarako edota biharamunik gabeko komunikazio ekintzetarako aitzakia izan ohi da maiz. Donibane Lohizunen ekinean gara egintza eta helburu argiekin. Liburuxka honek zenbait adibide aurkezten dizkizue.

Garapen iraunkorra gure ekintzaren -parte hartzeari zabalik den ekintza jarraitua izan nahi duenaren- ildo gidaria da neurri batean. Biztanleei da, beraz, garapen iraunkorrari heltzea eta beren egunerokora ekartzea. Horregatik antolatu genituen, 2018ko irailean, gaiaren inguruko lantegiak, donibandar anitzen interesa piztu zutenak eta zeinetara jende anitz bildu baitzen.

Baina garapen iraunkorra geure baitan hasten da lehen-lehenik. Zigar-rokinak, zakur kakak, tagak, hondakinak nonahi uztea, plastikoak itsasoan eta hondartzetan, etab…, oieskeria horiek guztiak murrizten hasiko bagina jadanik!

Erantzukizun handia dugu, hala norbanakook nola gizateria osoak ere, gibeletik datozkigun belaunaldien aitzinean. Guztiok behar ditugu geure erantzukizun horiek geure egin.

Jean-François Irigoyen
Donibane Lohizuneko auzapeza
Donibane Lohizune-Ziburuko Badiaren Sindikatuaren lehendakaria

Dokumentu honen ilustratzeko erabiliak izan diren argazkien egileak: Donibane Lohizuneko herriko etxea, Euskal Hirigune Elkargoa eta Arnaud Legué @Delacrea, Boris Sensamat eta DR.

ARDATZA 01

Energia trantsizioan errotu hiri antolakuntzak eta ekonomia garapena

HELBURUA 01

Bidaietan eta bizitegietan erabiltzaileek karbonodun energiekiko duten mendekotasuna gutxitzea

GIZARTE PARTZUERRAK: Euskal Elkargoa, Pirinio Atlantikoetako Energia Sindikatua, Pirinio Atlantikoetako Departamentua, ADEME, biztanleak, 64 Erakunde Publikoa, Mugikortasunen Sindikatua, Euskal Herriko Tokiko Funtsen Erakunde Publikoa

inezkoentzako seinaletika plantan ematea eta bus geldilekuen antolatzea mugitzeko molde iraunkorrak sustatzeko

Elektromugikortasuna garatzea, ibilgailu elektrikoen birkarga egiteko kargaguneak kokatu

Bizikletak alokatzeko autozerbitzua plantan ematea, bizikleta bideak eta ibilbide eztiak garatzea

Bizitegi lagunduen berriztapen termikoa

Leihatila bakarra sortzea bizitegien hobetzeko aholkuetarako eta diruzko, administraziozko eta teknikazko laguntzetarako

Egun ditugun auzoak berritzea hiriaren barreiatzea gutxitzeko

Egitate eremua : Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea · Ingurumenaren zaintza · Gizarte kohesioa eta elkartasuna · Bizi koadroa · Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra

ARDATZA 01

Energia trantsizioan errotu hiri antolakuntzak eta ekonomia garapena

HELBURUA 02

Lekuz alda ez litezkeen lanpostu kalifikatuak atxiki eta sortzea

GIZARTE PARTZUERRAK: merkatariak eta merkatarien elkarteak, Donibane Lohizuneko Saltegiak eta Animazioak, Euskal Elkargoa, SAFER, laborariak, merkataritza lokalen jabeak, Elkargoaren turismo bulegoa, tokiko eskulangintza enpresak

Tokiko merkataritza eskaintza sostengatzea: Hiriaren manager bat kontratatzea, animazioak plantan ematea, behatokia plantan ematea, "Donibane Lohizunen eros ezazu" kanpaina

Hutsik diren merkataritza lokalen gaineko akuilu zerga plantan ematea, erabil daitezen bultzatzeko

Jardun eremuak hedatzea: Jaldai IV eta Jaldai gaina

Azoka sortzailea antolatzea Jaldain, ekonomia urdinari loturiko proiektu berritzaileak laguntzeko ekoizpen digitaleko lantegi batean

2020ko udazkenerako biltzar eta mintegi zentro bat sortzea

Laborantza lurrak izarian kontsumitzea

Egitate eremua : Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea · Ingurumenaren zaintza · Gizarte kohesioa eta elkartasuna · Bizi koadroa · Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra

ARDATZA 01

Energia trantsizioan errotu hiri antolakuntzak eta ekonomia garapena

HELBURUA 03

Donibane Lohizune turismo arduratsuaren urraspidean engaiatzea

GIZARTE PARTZUERRAK: Euskal Elkargoa, Donibane Lohizune-Ziburuko Badiaren Sindikatua, elkarteak, Donibane Lohizuneko Saltegiak eta Animazioak, arrantza eragileak, Elkargoaren turismo bulegoa, biztanleak, leku eta eraikin publikoen erabiltzaileak

Bisitaldi gidatuen eta aktibitateen garapena, lekuko ondarearen ezagutzeko

Lurraldearen erakargarritasuna areagotzea turismoa urte osoan zehar erakartzeko (ondarea, kultura eta aisialdia)

Ekitaldiak eta jardunak molde iraunkorragoetarantz orientatzen joatea: plastiko gutxiago eta hondakinen sailkapena

Lehorreratu diren edo uretan diren hondakinak: itsasoan biltzea; eskuz biltzea; uda sasoian, ipar aldeko hondartzetan itsasoak ekarri hondakinetarako ontziak ("bacs à marée") kokatzea; Elkargoak egin hondartzen gida banatzea

Euskal Hirigune Elkargoak bainatze uren kalitatea kudeatzea eta informaziorako telefono adimentsuen bidezko aplikazio berria

Ur kontsumoak murrizteko baliabide orokor bat plantan ematea: hondartzetako dutxak, karriketako iturriak, eskolak, eraikin publikoak…

Egitate eremua : Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea · Ingurumenaren zaintza · Gizarte kohesioa eta elkartasuna · Bizi koadroa · Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra

ARDATZA 01

Energia trantsizioan errotu hiri antolakuntzak eta ekonomia garapena

HELBURUA 04

Banabide laburreko kalitatezko elikagaien ekoizpena sostengatzea

GIZARTE PARTZUERRAK: GEUZa, AMAPen sarea, elikagaien lanbideetako saltegiak, laborariak eta arrantzaleak, familia baratzeak, alokairu lagunduko alokatzaileak, Akitania Berriko Eskualdea, Donibane Lohizuneko Animazioak eta Saltegiak

Banabide laburren bidezko janariak etxeetara eramatea

Banabide laburrak jendeen eskuetara jartzen laguntzea: merkatua eta tokiko ekoizleen zuzeneko salmenta, AMAP

Eskola jantokietan banabide laburren bidez hornitzea garatzea

Elikagaietan beregain izatea bultzatzea familia baratzeei esker eta baratze partekatu bat sortzeari buruz bidean den azterketa

Hurbileko laborantza gara dadin eta ustiatzaile berriak koka daitezen laguntzea

"Herriko" adarraren balioa erakustea (Euskal Herriko behikia)

Egitate eremua : Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea · Ingurumenaren zaintza · Gizarte kohesioa eta elkartasuna · Bizi koadroa · Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra

ARDATZA 02

Klima aldaketara egokitzen den bizi ingurune zaindua

HELBURUA 05

Hiriak dituen ondare eraiki eta paisaiazkoak zaintzea

GIZARTE PARTZUERRAK: Donibane Lohizune-Ziburuko Badiaren Herriarteko Sindikatua, elkarteak, eraikuntzen eta paisaiaren profesionalak, merkatariak, biztanleak, Pirinio Atlantikoetako Arkitektura, Hirigintza eta Ingurumen Aholkularitza

Arauak eta gomendioak ematea "Ondaregune bikaina" sektorerako

Publizitate araudia berrikustea hiri ingurunea eta hiriaren sarbideak eta bide nagusiak zaintzeko, publizitate digitala kontrolatzea

Jabari publikoaren erabiltzearen gutuna eguneratzea, hurbileko saltegien erakargarritasuna zaintzeko

Tokiko arkitekturaren balioa azaltzea, "Donibane Lohizune-Ziburu Historia eta Arte Herrialdeko Hiri" labelaren barnean

Errekoletoen komentua zena Arkitektura eta Ondarearen Interpretazio zentro bilakatzea "Donibane Lohizune-Ziburu Historia eta Arte Herrialdeko Hiri" labelaren barnean

Euskal Kostaldearen paisaiaren eitea zaintzeko tokiko hesiak landatzearen balioa azalduko duen eskuorri pedagogikoa argitaratzea

Egitate eremua : Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea · Ingurumenaren zaintza · Gizarte kohesioa eta elkartasuna · Bizi koadroa · Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra

ARDATZA 02

Klima aldaketara egokitzen den bizi ingurune zaindua

HELBURUA 06

Bioaniztasunaren zaintza Donibaneko naturaguneen erabilerarekin bateratzea

GIZARTE PARTZUERRAK: Euskal Elkargoa, Uraren Agentzia, Pirinio Atlantikoetako Departamentua, ADELI elkartea, Pirinio Atlantikoetako Arkitektura, Hirigintza eta Ingurumen Aholkularitza, ingurumenaren bitartez gizarteratzeko elkarteak, biztanleak

Saneamenduaren, ibaien kalitatearen eta bainatze guneen kudeaketa

Harxiloko Naturagune Andeaerrazaren natura inguruneak lehengoratzea

Landaretegiaren zereginak euskal itsas bazterreko natura inguruneak eta landare babestuak zaintzeko

Landaretegiaren lantegiak jende ororentzat eta eskola umeentzat: itsas bazterraren ezagutzea, baratzea, lurrustela egitea, habi kutxak, mindak, basa abereak …

Herriaren berdeguneen kudeaketa iraunkorra eta leku horietan produktu fitosanitariorik ez erabiltzea

Hirian "Zerofito" ibilbide pedagogikoa asmatzea pertsonen osasunerako nola ingurumenerako osasuntsuak diren baratze teknikak sustatzeko

ARDATZA 02

Klima aldaketara egokitzen den bizi ingurune zaindua

HELBURUA 07

Hiria itsas hegiaren higaduraren eta klima aldaketaren ondorioei egokitzea

GIZARTE PARTZUERRAK: Euskal Elkargoa, Getariko Herriko Etxea, Akitaniako Itsas Bazterreko Interes Publikoko Elkargoa, Estatuaren Zerbitzuak, Pirinio Atlantikoetako Departamentua, Pirinio Atlantikoetako Arkitektura, Hirigintza eta Ingurumen Aholkularitza , biztanleak

Hiriaren Natura Arriskuen Prebentzio Plana egitea: Arrisku eremuak zedarritzea eta haiei loturiko araudiak zehaztea

Herriaren Babes Plana eguneratzea (EBP-PCS): Arrisku nagusiren bat gertatuz gero (naturakoa, teknologikoa, sanitarioa...) egin beharreko kudeaketaren plangintza egitea

Natura arriskuei loturiko perilik balitz (itsasoak gaina hartzea, uholdea…) erabili beharreko segurtasun baliabideak plantan ematea

Euskal Elkargoak higadura dela eta daraman kudeaketa estrategia zehazten parte hartzea

"Turismo lekuen antolaketa iraunkorra" azterketarekin jarraitzea, herriaren ipar aldeko itsas bazterraren hiri bilakaera laguntzeko

Espezie exotiko inbaditzaileen aurkako borroka: asiar lozerra, pinu beldarra, Pampako belarra, tigre eltxoa

Egitate eremua : Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea · Ingurumenaren zaintza · Gizarte kohesioa eta elkartasuna · Bizi koadroa · Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra

HELBURUA 08

Diru baldintza onargarrietan lortzea bizitegia

GIZARTE PARTZUERRAK: alokairu lagunduko alokatzaileak, biztanleak, bizitegi jabeak, Euskal Elkargoa, GEUZa, Pirinio Atlantikoetako Departamentua, karitate elkarteak

Gizarte mistotasuna areagotzea eta bizitegi motak aniztea Elgar auzoan

Bizitegi moten eskaintza areagotzea: alokairu lagundukoa, erosketa lagundukoa eta bizitegi pribatuak Trikaldin

Bizitegi lagunduak eta ekipamendu publikoak eraikitzeko programetarako funts erreserbak osatzea

Erosteko bizitegiak bizitegi lagunduak izaten jarrai dezaten behar diren klausulak ezartzea

Eskuragarri den bizitegia erosi ahal izateko baliabide berritzaileak garatzea: Elkartasunezko Egiazko Alokairua

GEUZarekin batera, larrialdietarako bizitegiak sortzea: tratu txarrak jasan dituzten emazteentzat, zailtasunetan diren pertsonentzat…

Egitate eremua : Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea · Ingurumenaren zaintza · Gizarte kohesioa eta elkartasuna · Bizi koadroa · Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra

ARDATZA 03

Gizarte kohesio eta kultura bizitza azkartuak

HELBURUA 09

Biztanleak haiei egokitu zerbitzu publikoen bitartez laguntzea

GIZARTE PARTZUERRAK: Gizarte Ekintzarako Udal Zentroa (GEUZ), Sagardian, haurren aldeko profesionalak, biztanleak, Pôle emploi, elkarteak, Akitania Berriko Eskualdea, Tokiko Misioa, Pirinio Atlantikoetako Departamentu Kontseilua, Pirinio Atlantikoetako Kudeaketa Zentroa

Itxakako Haur Ttipien Gunearen berriztapena eta hedapena

Jende oro laguntzea orientatze, formakuntza eta enplegu urraspideetan Gazteen Guneko Akitania Lanbideak gunean

GEUZak, Sagardian elkarteak eta gizarte eragile guztiek daramatzaten proiektu, animazio eta aditze ekintzak

Adinekoen bizi kalitatea laguntzea: Lagun Artean kluba, isolamenduaren aurkako borroka…

Leku publikoak ororentzat helgarri izan daitezen egin behar diren antolakuntzak egiten jarraitzea

Herriaren langileei lehen sokorri keinuetarako formakuntza ematea eta herrian desfibrilagailuak kokatzea

Egitate eremua : Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea · Ingurumenaren zaintza · Gizarte kohesioa eta elkartasuna · Bizi koadroa · Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra

ARDATZA 03

Gizarte kohesio eta kultura bizitza azkartuak

HELBURUA 10

Kultura eta kirol politikak garatzea

GIZARTE PARTZUERRAK: Donibane Lohizune-Ziburuko Badiaren Herriarteko Sindikatua, Euskararen Erakunde Publikoa, Euskal Elkargoa, elkarteak, biztanleak, Bakersfield (Kalifornia) eta Getxo (Hegoalde) hiriak

Kulturgune bat eraikitzea zuzeneko ikuskizunetarako eta kultura egitaraua gauzatzea: zuzeneko ikuskizunak, arte plastikoak, irakurketa publikoa…

Ondarearen aldeko bitartekaritza urraspidea jende ororekin, "Donibane Lohizune-Ziburu Historia eta Arte Herrialdeko Hiri" labelaren bidez

Kultura eta ekonomia trukeak Bakersfield (Kalifornia) eta Getxo (Hego Euskal Herria) hiriekin

Euskara garatzeko Aitzinamendu Kontratu bat plantan ematea

Eskola oporraldietan 6-17 urte artekoentzako animazioak

"Kirola ororentzat duen herria" labela eskuratzea, dugun elkarte sektore dinamikoari esker, Donibane multisport eskolari esker, Urdazuriko kirol ibilbideari esker…

ARDATZA 03

Gizarte kohesio eta kultura bizitza azkartuak

HELBURUA 11

Herritar jokamolde berriak ezagutzea eta geureganatzea faboratzea

GIZARTE PARTZUERRAK: Euskal Elkargoa, Bil Ta Garbi Sindikatua, ADELI elkartea, herritar zerbitzua egiten ari diren gazteak, biztanleak, merkatariak eta ekoizleak, Donibane Lohizune Animazo eta Saltegiak

Internet bidezko zerbitzu hurbila sortzea hirian ikusi zeinahi arazoren berri emateko

Herritar bizitzan sartzeko gazteen proiektuak sostengatzea

Jende ororen aitzinean tokiko kalitatezko elikadura sustatzea: tokiko ekoizleen merkatuak, mintzaldiak, topaketak, sukaldaritza lantegiak…

Mediatekan jardun digitalera irekitzea: gune digitala eta tresna berriak jendeen eskura ematea (irakurgailu digitalak…)

Jende guztiak oieskerietaz ohartaraztea: afixatze kanpaina, herritar zerbitzuko gazteak hartzea, hondakinak nonahi uztearen aurkako isunak…

Azokako eta hiri barneko salmentetako hondakinen kudeaketa hobetzea

Egitate eremua : Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea · Ingurumenaren zaintza · Gizarte kohesioa eta elkartasuna · Bizi koadroa · Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra

HELBURUA 12

Herri zerbitzuek karbonodun energiekiko duten mendekotasuna gutxitzea

GIZARTE PARTZUERRAK: ADEME, udal langileak, biztanleak

Herriaren ondarearen energia berriztapenaren eta berriztapen termikoaren plana gauzatzea, energia arduradun bat izendatzea

Argiztapen publikoaren kudeaketa arrazoitua garatzea

Energia berriztagarriak garatzeko azterketa: udal akanpalekuaren dutxak eguzki energiaz berotzea

Diesel ibilgailuak pixkanaka ibilgailu elektrikoekin edota hibridoekin ordezkatzen joatea, zenbait ibilgailutan bioerregaiak erabiltzea

Herri zerbitzuen jardunek sortu hondakinen sailkapena hobetzea

Herri langileak eta leku publikoen erabiltzaileak jardun iraunkorren alde ohartaraztea: hondakinen gutxitzea, berogintza, komunikazio digitala…

ARDATZA 04

Energia trantsizioan kokaturik diren herri zerbitzuak

HELBURUA 13 Herriaren "Finantza eta erosketa" funtzioa baliatzea ekoarduratsu diren jarduera eta eskaintza ekonomikoak bultzatzeko

GIZARTE PARTZUERRAK: auzoko kolektibitateak, Euskal Elkargoa, Pirinio Atlantikoetako Energia Sindikatua

Auzoko kolektibitateekin talde eskaerak (fotokopiagailuen merkatuen adibidea), eskalako aurkezpenak egiteko

Ingurumen irizpideak sartzea Herriaren eroste politikan: ekolabela duten produktuak, ibilgailu hibridoak…

Gizarte ekintzako irizpideak sartzea gizarteratzeko ADELI elkartearekin batera kudeatu naturaguneen zaintza merkatuetan

Zerbitzu publikoen ordainketa errazteko aterabide teknikoen gaineko azterketak: jantokiak, aparkatzea…

Desmaterializatzea plantan ematea barneko prozeduretan eta hirugarrenekikoetan: sinadura elek tronikoa, erosleen plataforma…

Energia berdeko kontratuak garatzeko diruztapen azterketak Herriarentzako elektrizitate hornikuntza merkatuetan

Egitate eremua : Beharkizun energetikoak & airearen kalitatea · Ingurumenaren zaintza · Gizarte kohesioa eta elkartasuna · Bizi koadroa · Ekoizpena & kontsumitze iraunkorra

ARDATZA 04

Energia trantsizioan kokaturik diren herri zerbitzuak

HELBURUA 14 Hiri iraunkorraren urraspidea erregularki biziaraz eta balioztatzeko aukera emanen duten barneko baldintzak ezartzea

GIZARTE PARTZUERRAK: biztanleak et leku publikoen erabiltzaileak, Euskal Elkargoa

Biztanleekiko elkar aditze erregularrak plantan ematea «Berriak» udal aldizkariaren bidez, bilkura publikoen bidez, lantegien, mintegien bidez…

Hautetsiek eta udal zerbitzuek eginikoen jarraipena egitea eta 2021ean aitzinatze mailaren egoera aurkeztea

Garapen iraunkorreko urraspidea, Euskal Elkargoak daramatzan energia eta ekologia trantsizio politikekin loturik

PARTAIDETZA URRASPIDEA

Hainbat eragile aritzen dira herriko garapen iraunkorreko politikak zehazten eta gauzatzen.

Ekintza plan honen helburu bakoitzak aurkeztu ditu –guztiak eman gabe, halere-herriko etxearen partaide nagusiak. Anitz dira partaide horiek: biztanleak, enpresak, elkarteak, Euskal Elkargoa eta lurraldeko beste zenbait zerbitzu publiko…

Proiektu bat eramateko ezinbestekoa da eragile horiek guztiak ezagutzea, bai eta bakoitzaren jardun eremua ere. Alta, berrikitan, hainbat lege eta eskemak (lurralde kolektibitateen erreformarako legeak, MAPTAM, NOTRe…) herriak herrarteko elkargo bateratu baten inguruan batzera akuilatu dituzte: Euskal Elkargoaren inguruan. Horrek eman digu zenbait politika maila egokiago batean, lurraldera egokituagoa den maila batean, pentsatzeko aukera: garraio sareen hedapena, ekonomia eremuen antolakuntza, lurraldeko hondakinen kudeaketa…

Orrialde honek herriaren lankide diren herriarteko lankidetzarako egitura nagusiak aurkezten ditu:

Erakunde garrantzitsuena **Euskal Elkargoa** da, Ipar Euskal Herriko 158 herriak bateratzen dituena. Honako eskumen hauek koordinatzen ditu: lurraldearen antolaketa eta bizilekuak, ekonomia, hizkuntza eta kultura politikak, ekologia eta energia trantsizioa, ura, itsas hegia eta natura inguruneak, gizarte kohesioa, mugikortasunak, prebentzioa, hondakinen bilketa eta balioa ematea, Europa eta mugazgaindiko lankidetza, euskal mendialdea.

Donibane Lohizune-Ziburuko Badiaren Herriarteko Sindikatuak honako egiteko hauek ditu:

- Badiaren antolakuntza eta haren ingurumenaren babesa;
- Larraldeneko laket portuaren eta badiako, Zokoako eta Urdazuriko ur guneen garapena;
- "Arte eta Historia Herrialdeko Hiri" labela biziaraztea Donibane Lohizune eta Ziburu herrietan;
- Ziburuko Errekoletoen penintsulako eraikinen antolatze eragiketa gidatzea.

Mugikortasunen Sindikatua mugikortasunen Agintari Antolatzailea da Ipar Euskal Herri osorako eta Tarnoze hirirako. Hiri barneko eta hirien arteko garraio erregularren zerbitzuen ustiapena antolatu eta gauzatzen du, bai eta eskola garraioak ere. Euskal Elkargoak eta bere Mugikortasunen Sindikatuak helburu argi bat dute: mugitzeko eskaintza moderno eta eraginkorra eraikitzea, «oro autoz» hautabidearen oso bestelako hautabide gisa: autobus sareak garatzen ditu, bizikleta bideak, garraio molde garbiagoak.

Pirinio Atlantikoetako Energia Sindikatuak (SDEPA) departamentuko herrien barneko energia banaketa eta ekoizpena ditu bere kargura.

Hego Atlantikoaren Nazio mailako Landare Zaindegiaren Sindikatu Mistoa: hegoaldeko bitartekaria Donibane Lohizuneko itsas hegiko landaretegian dago; honako egiteko hauek ditu:

- Basa landarediaren egoera eta bilakaeraren ezagutza eta naturazko eta erdi naturazko bizilekuena.
- Basa landare bakan eta arriskuan direnak izendatu eta zaintzea.
- Estatua, haren erakunde publikoak, lurralde kolektibitateak eta haien elkargoak laguntzea
- Jende guztiei informazioa eta heziketa eskaintzea landare aniztasuna ezagutu eta zain dezaten.

Donibane Lohizune garapen iraunkorraren alde engaiaturik

Hôtel de ville - 2 place Louis XIV - 64500 Saint-Jean-de-Luz
villedurable@saintjeandeluz.fr - www.saintjeandeluz.fr

Conception graphique : yohanna.delgado@free.fr - Imprimerie : Abéradère Impression